



Idiazabalgo Udala

EZOHIKO UDALBATZARRA

2019ko ekainaren 15ean

LEKUA: Udaletxeko Batzar Areto Nagusia

LEHENDAKARIA: Aloña Barandiaran Munduate

ZINEGOTZIAK:

Iñaki Alberdi Iparragirre

Iñaki Arriaran Murgiondo.

Ioana Prados Alustiza

Eunate Elio Cemborain

Aritz Ugarte Munduate.

Ioritz Imaz Baztarrika

Andoni Gomez Aldanondo

Aitzol Mendizabal Malkorra

Kepa Oiarbide Labaka

Iker Zabaleta Urcelai

IDAZKARIA: Isabel Fuertes Matxin

BATZARRA: Ezohikoa. DEIALDIA: Lehenengoa.

ORDUA: Hasiera: 12:00etan

GAI ZERRENDA>

1. Adineko Mahaia eratzea

Idazkari Kontu hartailak bertaratu guztiei ongi etorria eman die eta azaldu du Hauteskunde Erregimen Orokorra Arau tzen duen ekainaren 19ko 5/1985 Lege Organikoak aurreikusitako prozedurak jarraituz, Idiazabalgo Udaltzat eratu eta Idiazabalgo Udaleko Alkate-udalburuaren hautaketa egin behar dela. Horretarako, Adineko Mahaia eratu behar dela

Adineko Mahaia eratu da Aloña Barandiaran Munduate eta Andoni Gomez Aldanondo zinegotziekin, Udaltzat Idazkariarekin batera. Adineko Mahaiak hautagaiak identifikatu ditu eta egiaztatu du gehiengo absolutua bertan dagoela.



Idiazabalgo Udala

2. Idiazabalgo udal korporazioa eratzea

Aloña Barandiaran Munduate Aduneko Mahaiaren Lehendakariak hautagaieii galdetu die: «Zin egiten duzue edo hitz ematen, zuen kontzientzia eta ohoreagatik, karguaren eginbeharrak leialtasunez zintzo beteko dituzuela eta Konstituzioa zaindu eta zainaraziko duzuela, Estatuaren arau nagusia baita, eta Gernikako Estatutua eta hartatik etorritako gainerako legeak beteko dituzuela?»

Hautagai guztiek zin egin dute, legeak hala aginduta.

Hortaz, hamaika zinegotziz osatutako Idiazabalgo Udalbatza 2019ko ekainaren 15ean egindako ezohiko bilkuran eratu da.

3. Idiazabalgo Udalaren Alkatea hautatzea

Idazkariak adierazi du bi zerrenda daudela.

Ioritz Imaz Baztarrika zinegotziak adierazi du IZAL BAI-ren zerrenda-burua ez dela aurkeztuko eta bozkatuko dutela EH Bilduren zerrenda-buruaren alde.

Iñaki Alberdi Iparragirre EH-Bilduren zerrenda-burua Idiazabalgo Alkatea izateko proposamena bozketan jari da.

Bozketa egin da eskua altxatuz.

Alde: Iñaki Alberdi Iparragirre, Aloña Barandiaran Munduate, Iñaki Arriaran Murgiondo, Ioana Prados Alustiza, Aritz Ugarte Munduate, Eunete Elio Cemborain, Ioritz Imaz Baztarrika, Andoni Gomez Aldanondo, Aitzol Mendizabal Malkorra, Iker Zabaleta Urcelai eta Kepa Oiarbide Labaka.

Kontra: Ez

Abstentziorik: Ez

Hortaz, Iñaki Alberdi Iparragirre EH Bildu alderdiaren zerrenda-burua 2019-2023 agintaldirako Idiazabalgo Udaleko Alkate-udalburua hautatu dute aho batez.

Andoni Gomez Aldanondo zinegotziak galdetu dio: «Zin egiten duzu edo hitz ematen, zure kontzientzia eta ohoreagatik, Lehendakari karguaren eginbeharrak Erregearekiko leialtasunez zintzo beteko dituzula eta Konstituzioa zaindu eta zainaraziko duzula, Estatuaren arau nagusia baita, eta Gernikako Estatutua eta hartatik etorritako gainerako legeak beteko dituzula?»

Iñaki Alberdi Iparragirre jaunak zin egin du, legeriaren aginduz.

Iñaki Alberdi Iparragirre Alkateak Ioritz Imaz Baztarrika. den aurreneko Alkateak, Diruzainak eta Idazkari Kontu hartzaileak sinatu dute ez ohiko kontaketaaren agiria.

Iñaki Alberdi Iparragirre Alkateak Ioritz Imaz Baztarrika. den aurreneko Alkateak eta Idazkari Kontu hartzaileak sinatu dute ondasunen inbentarioaren egiaztapenaren agiria.

Iñaki Alberdi Iparragirre Alkateak hitza hartu du eta guzti-guztiei eskerrak eman ondoren, Mikel Garmendia, Loinaz Urestaratzu eta Martin Lizarazu gogoan izan ditu. Era berean, proiektuak aurrera eramateko herritar guztien zein langileen beharra dagoela aipatu du, guztien partaidetza beharrezkoa eta oso estimatua izango dela



Idiazabalgo Udala

adieraziz.

Alkatearen oniritziarekin, bilera bukatutzat eman da arratsaldeko ordu betean eta agiri hau jaso da.

O.I
ALKATEAK
Iñaki Alberdi Iparrairre

IDAZKARI KONTU HARTZAILEAK
Isabel Fuertes Matxin